

Iritzi Generoak

2019-2020



Korrika

Gero eta gehiago gara, baina beti ez gara milaka izan. Egon izan gara binaka, lekukoaren zain, taldea osatu ezinik. Joan gara lau edo bost furgonetaren atzetik gaez. Baina beti joan gara.

Amaren lepoan hasi eta orain arte. Eta beti hunkitu gara. Erokeria ederrik munduan bada, hori Korrika da. Arrapaladan egiteko aitzakiarik jar-



BIRA
Onintza Enbeita

tzen ez dudan egun bakarra, herritik edo inguruko herrietatik pasatzen den eguna izaten da. Bizipenez bete gaitu urtez urte, eta honezkero 21 aldiz joan gara lekukoaren atzetik. Aitita Balendinek eraman zuen aldia ez

daukat gogoan, baina han omen nengoen. Harrezkero egin ditugu gaupasak, jaiki gara goizaldeko 04:00etan lanegun batean, harrapatu dugu lekukoa Euskal Herriko beste lekuren batean, joan gara astiro, arin, arnasestuka... baina beti barreka. Eta hori da ederrena: nola jartzen zaigun oilo ipurdiz azala eta nola egiten dugun barre.

Badakit euskararen aldeko aldarrikapena dela Korrika, eta mundu idealean bizi bagina ez genukeela aldarrikatu beharko. Baina, gure hizkuntza zapalduta ez dagoenean ere, Euskal Herria independentea eta euskalduna denean ere, Korrika egin egin behar genuke: poza zabalteko, bidea non hasi genuen ez ahazteko, eta batez ere, geure nortasunaren alde erokeriak egiteko ere gai garela munduari erakusteko.

Onintza Enbeita kazetari eta bertsolariaren zutabea *Berria* egunkarian.



6. GAIA: Zutabea

6.1. Definizioa

6.2. Ezaugarriak

6.3. Sinaduraren prestigioa
eta ideologiaren pisua

6.4. Egitura

6.5. Motak




6. GAIA: Zutabea

6.1. Definizioa

- Kolaboratzaile finko batek, kazetaria izan ala ez, maiztasun, kokapen eta hedadura jakinarekin argitaratzen duen iritzi testua da.

Argazkia: Thomas Friedman (The New York Times).
Nazioartean zein ekonomian aditua da eta hiru Pulitzer sari bereganatu ditu.



6. GAIA: Zutabea

6.2. Ezaugarriak

- Sinaduratik hasten da irakurketa. Zutabegilearen erakarmena.
- Konfiantzazko harremana sortzen da zutabegile eta irakurlearen artean.
- Testu labur eta arina.
- Askatasun handiko testua da.
Eduki zein estilo aldetik oso librea da.
- Gaiak askotarikoak dira.
Gai esanguratsuak ez ezik,
garrantzi eskasekoak ere dira hizpide.

Argazkiak: Aritz Gorrotxategi (DV) eta Andoni Egaña (Berria).



6. GAIA: Zutabea

- Aberastasun lexikoa.
 - Erabilitako hizkuntza oso anitza da.
Adb.: idazkera barrokoa eta hotza nahas daitezke.
 - Hizkuntza koloretsua: metaforak, adjektiboak, admirazio ikurrak...
- Aldizkakotasun, kokapen eta hedadura jakina.
- Tratamendu tipografiko berezia du: argazkia, lauki baten barnean...

Irati
Jimenez
(Gara)



6. GAIA: Zutabea

6.3. Sinaduraren prestigioa eta ideologiaren pisua

- Sinaduraren ospea. Irakurleak sinadura handiak bilatzen ditu: idazleak, kazetari ezagunak...
- Kazetaren ildo ideologikotik at dauden zutabegileak izateak aberastu egiten du.
 - Zutabegileak bere ideiak islatzeko askatasuna du. Zuzendariak, ordea, kolaboratzaileak aukeratu edo haien kontratua eteteko askatasuna



6. GAIA: Zutabea

■ Koherentzia

Nolabaiteko koherentzia bat dago kazetaren ildo ideologikoaren eta zutabegilearen gogoeten artean.

-Normalean kazeta eta zutabegilea bat datoz auzi nagusietan.

Haien jarrerak kontrajarriak badira, irakurlea nahas dezakete eta.

-Hortaz: iritzi ezberdinek euren lekua duten arren, zutabe gehienek aintzat hartzen dute kazetaren ildo editoriala.

Xabier Eguzkitze (Deia)



6. GAIA: Zutabea

6.4. Egitura

1. Titulazioa:

Adierazkorra eta irudimentsua.

2. Testua:

2.1. Hastapena

2.2. Gaia lantzea

- Iritziaren azalpen sakonagoa.
- Iritzia egiaztatzea.

2.3. Tesia

2.4. Amaiera.



6. GAIA: Zutabea

6.5. Motak

1. Zutabe pertsonala. Sona handiko idazleei eskainitako zutabea izan ohi da: Anjel Lertxundi, Arturo Pérez-Reverte, Javier Marías, Walter Lippmann... Askatasun osoa dute nahi dutena idazteko.

2. Umorezko zutabea. Umorea darabilten zutabeek bi xede nagusi dituzte:

- Salaketa umorearen bitartez
(botere gehiegikeriak usu)
- Irakurlearen empatia erdiestea
(umoreak intimitatea dakar)



6. GAIA: Zutabea

3. Zutabe politikoa. Politika da ardatz eta sinadura ezagunak.

3.1. Euskal Herria

3.2. Mundua

3.3. Udal mailakoa

4. Literatur kutsuko zutabea. Literatur entsegu bilakatzen da. Gaiak askotarikoak dira eta zutabegileak aski ezagunak.

5. Gizarte zutabea. Kronika arrosa eta txutxu-mutxuak dira nagusi.

II. Mundu Gerra aurretik: handikien festak, ezkontzak... Oso urriak dira egun.



6. GAIA: Zutabea

6. Bestelako zutabeak

Ekonomia

Kirola

Gastronomia

Erljioa

